

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Etxe Maitia, Autonomia Pertsonala Garatzeko Komunitate eta Egoitza Laguntzarako Udal Zentroa (Basauri)**

Egonkortzeko LEPa aldatzea erizaintzako laguntzailearen bost lanpostu gehitzeko (LPZko 44.15, 4.16, 4.17, 4.18 eta 4.19 kodeak), adierazitako bost lanpostuak txanda irekian eta lehiaketa modalitatean betetzeko deialdia onartzea, eta hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak onartzea, Bilboko Administrazioarekiko Auzien 1 zenbakiko Epaitegian 159/2023 zenbakiko errekurtsioan emandako epaiaren arabera.

Etxe Maitia Udal Egoitza erakunde autonomoaren Kontseilu Errektoreak 2023ko azaroaren 23an hartutako erabakiaren bidez, honako hau ebatzi da:

EBAZPENA:

Lehena: Egonkortzeko Lan Eskaintza Publikoaren aldaketa onartzea, Erizaintzako Laguntzaileen 5 lanpostu gehituz %67,57ko lanaldi partzialean (4.15, 4.16, 4.17, 4.18 eta 4.19 kodeak, C2 azpitaldea, 17. ordainsari-maila), Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 2023ko irailaren 21eko 413/2023 epaia betez.

Bigarrena: Erizaintzako Laguntzaileen lanbide-kategorian %67,57ko lanaldi partzialeko bost lanpostu (4.15, 4.16, 4.17, 4.18 eta 4.19 kodeak, C2 azpitaldea, 17. ordainsari-maila) txanda irekian betetzeko deialdia onartzea.

Hirugarrena: Erizaintzako Laguntzaileen lanbide-kategorian %67,57ko lanaldi partzialeko bost lanpostu (4.15, 4.16, 4.17, 4.18 eta 4.19 kodeak, C2 azpitaldea, 17. ordainsari-maila) txanda irekian eta lehiaketa bidez betetzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak onartzea.

Laugarrena: Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agindua ematea, bai eta deialdiaren laburpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzekoa ere.

Bosgarrena: Deialdia onartzeko ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsioa, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organo beraren aurrean, kontuan hartuta uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitakoa.

Basaurin, 2023ko azaroaren 28an.—Kontseilu Errektorearen Presidentea, María Larinaga Artetxe

**I. ERANSKINA**

Egonkortzeko Lan Eskaintza Publikoa aldatzea. Presidentearen 2022ko maiatzaren 18ko Ebazpenaren bidez onartu zen LEPa (2022ko maiatzaren 27ko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 101. zenbakia) eta 2023ko abuztuaren 1eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (146. zenbakia) zuzendu.

Honako hau dioen tokian:

«Etxe Maitia, Autonomia Pertsonala Garatzeko Komunitate eta Egoitza Laguntzarako Udal Zentroa» erakunde autonomoaren Enplegu Publikoaren Eskaintza Publikoa onartzea, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean aurreikusitako egonkortze-prozesuak artikulatzen dituena. Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko uztailaren 6ko 14/2021 Errege Lege Dekretuaren babesean eskainitako plazak (2021eko abenduaren 31ko 251. zenbakiko «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratuak) nahiz 20/2021 Legearen babesean eskaini beharreko zatik jo direnak barne hartzen ditu, honako xehetasun hauen arabera:

Kodea	Lanpostuaren izena	Azpitaldea	Plaza kop.	HE
2.1.	Administratzailea	A2	1	3
2.2.	Zuzendaritzako laguntzailea	A.P.	1	2
2.3.	Zuzendaritzako laguntzailea	A.P.	1	2
3.1.	Erizaina	A2	1	3
4.3.	Erizaintzako laguntzailea	C2	1	2
4.9.	Erizaintzako laguntzailea	C2	1	2
4.10.	Erizaintzako laguntzailea	C2	1	2
4.12.	Erizaintzako laguntzailea	C2	1	2
4.13.	Erizaintzako laguntzailea	C2	1	2
4.14.	Erizaintzako laguntzailea	C2	1	2
5.2.	Atezaina	A.P.	1	1
7.1.	Sukaldeko laguntzailea	A.P.	1	1
7.2.	Sukaldeko laguntzailea	A.P.	1	1
8.1.	Mihiseriako laguntzailea	A.P.	1	1
8.2.	Mihiseriako laguntzailea	A.P.	1	1

Honako hau esan behar du:

«Etxe Maitia, Autonomia Pertsonala Garatzeko Komunitate eta Egoitza Laguntzarako Udal Zentroa» erakunde autonomoaren Enplegu Publikoaren Eskaintza Publikoa onartzea, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean aurreikusitako egonkortze-prozesuak artikulatzen dituena. Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko uztailaren 6ko 14/2021 Errege Lege Dekretuaren babesean eskainitako plazak (2021eko abenduaren 31ko 251. zenbakiko «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratuak) nahiz 20/2021 Legearen babesean eskaini beharreko zatik jo direnak barne hartzen ditu, honako xehetasun hauen arabera:



Kodea	Lanpostuaren izena	Azpitaldea	Plaza kop.	HE
2.1.	Administratzailea	A2	1	3
2.2.	Zuzendaritzako laguntzailea	A.P.	1	2
2.3.	Zuzendaritzako laguntzailea	C1	1	2
3.1.	Erizaina	A2	1	3
4.3.	Erizaintzako laguntzailea	C2	1	2
4.9.	Erizaintzako laguntzailea	C2	1	2
4.10.	Erizaintzako laguntzailea	C2	1	2
4.12.	Erizaintzako laguntzailea	C2	1	2
4.13.	Erizaintzako laguntzailea	C2	1	2
4.14.	Erizaintzako laguntzailea	C2	1	2
4.15.	Erizaintzako laguntzailea	C2	1	2
4.16.	Erizaintzako laguntzailea	C2	1	2
4.17.	Erizaintzako laguntzailea	C2	1	2
4.18.	Erizaintzako laguntzailea	C2	1	2
4.19.	Erizaintzako laguntzailea	C2	1	2
5.2.	Atezaina	A.P.	1	1
7.1.	Sukaldeko laguntzailea	A.P.	1	1
7.2.	Sukaldeko laguntzailea	A.P.	1	1
8.1.	Mihiseriako laguntzailea	A.P.	1	1
8.2.	Mihiseriako laguntzailea	A.P.	1	1



II. ERANSKINA

IRAUPEN LUZEKO ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO SALBUESPENEZKO DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK, 20/2021 LEGEAREN 6. ETA 8. XEDAPEN GEHIGARRIETATIK ERATORRITA, ETA ERIZAINZAKO LAGUNTAILEEN LANBIDE-KATEGORIAKO C2 AZPITALDERAKO**1. 1. – Deialdiko plazak**

ERIZAINZAKO LAGUNTAILEAREN lanbide-kategoriako C2 azpitaldeko 5 lanpostu betetzeko deialdia da, txanda irekian, banaketa honen arabera:

Plaza-kopurua	Lotutako lanpostuak	Ezaugarriak (hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-data, betekizun espezifikoak, etab.)
5	ERIZAINZAKO LAGUNTAILEA (4.15, 4.16, 4.17, 4.18 eta 4.19 kodeak)	2. hizkuntza-eskakizuna, nahitaez C2 azpitaldea Ordainsari-maila: 17 Urteko ordainsari gordina: 28.698,97 euro Lanaldi osoaren %67,67ko lanaldi partziala

2. Parte hartzeko baldintzak

2.1. Plazak lortu nahi dituzten pertsonen oinarri orokorren 2. atalean ezarritako baldintza orokorrak bete behar dituzte.

2.2. C2 azpitaldeko langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa: 9 euro.

2.3. Oinarri orokorren 2. h) atalari dagokionez, LH 1 Osasun-Adarra edo Baliokidea titulazioa behar da.

3. Lanpostuak esleitzeko baldintza espezifikoak

3.1. – Deialdi honen xede diren plazei lotutako lanpostuetan, HE2 euskara-eskakizunak eska daitezke. Derrigortasun-data igarota duten lanpostuetan, euskara jakitea baldintza izango da.

4. Hautapen-prozesua

Hautapen-sistema lehiaketa izango da. 2 zati izango ditu:

4.1.1. Lehenengo zatia, lehiaketa: aztertu eta baloratu egingo dira hautagaiek eskabidean alegatu eta egiaztatu dituzten merezimenduak, auto-balorazio-sistema bidez, eta bakoitzari dagozkion puntuak esleituko zaizkio, merezimenduen baremoaren arabera. Soil-soilik baloratuko da oinarri orokorretan puntuazioaren arabera ordenatutako instantzia-kopurua.

Lehiaketa baztertzaileria izango ez bada ere, puntu guztien %25eko gutxieneko puntuazioa lortu beharko da, oinarri orokorretako 10.2 oinarrian ezarritakoaren arabera.

4.1.2. Bigarren zatia, euskara-proba: nahitaezkoa eta baztertzaileria, 2. hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetarako lehiatzen diren hautagaientzat.

Hautagaia Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan akreditatuta dagoenean, ez da egiaztatu beharko. Kasu horretan, hautagaiak baimena emango dio Etxe Maitia egoitzari erregistro horretan sartzeko.

Hala ere, aurkeztu egin beharko da erregistro horretan jasota ez dagoen baina 297/2010 Dekretuaren arabera baliozkotutako beste edozein euskara-titulu edo -ziurtagiri (297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskara egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliozkotzeari eta horiek Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeari buruzkoa).

Nolanahi ere, dagokien ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko dute 47/2012 Dekretuaren babesean (apirilaren 3koa, euskaraz eginiko ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuestekoa) HE2 hizkuntza-eskakizuna egiaztatu nahi dutenek. Horretarako, Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan baliozkotutako salbuespenak baino ez dira onartuko.



5. Hautapen-prozesuaren kalifikazioa

5.1. Lehiaketaren kalifikazioa zehazteko, kontuan hartuko da merezimenduen baremoaren (I. eranskina) arabera emandako puntuen batura.

5.2. Hizkuntza-eskakizunik eskatzen ez denean, euskara jakitea merezimendutzat hartuko da.

5.3. Hautagaien azken kalifikazioa hautapen-prozesu osoan lortutako puntuazioen baturak emango du.

6. Enplegu-poltsa

Hautapen-prozesu honetatik ez da enplegu-poltsarik sortuko.

7. Lehentasun-klausula aplikatzea

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2. artikuluari dagokionez, ez da aplikatuko artikulua horretan berdinketa hausteko ezarritako klausula, emakumeak ez daudelako azpiordezkatuta C2 azpitaldean eta Erizaintzako Laguntzaileen kategorian.



III. ERANSKINA

MEREZIMENDUEN BAREMOA

Abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrien arabera:

a) *Esperientzia: gehienez 80 puntu*

a.1. Esperientzia orokorra:

Esperientzia orokorra da edozein administrazio publikotan eginiko lanak ematen duen esperientzia, deialdia egin duen administrazioa barne, kidego, eskala, azpieskala, aukera, espezialitate edo talde profesional parekatuei atxikitako lanpostuetan, baldin eta kidego, azpieskala, aukera, espezialitate edo talde profesional horiek hautapen-prozesuaren xede badira, edozein izanik ere haien izaera (kontratuduna edo funtzionarioa).

Gehienez 60 puntu emango dira, baremo honen arabera:

– Erizaintzako Laguntzaile kategorian, C2 azpitaldean, edozein administrazio publikotan eginiko lana, deialdia egin duen administrazioa barne, 0,0274 puntu lan egindako egun bakoitzeko.

a.2. Esperientzia espezifikoa:

20 puntu emango zaizkie gehienez, esperientzia orokorraren baloraziotik be-reiz, administrazio deitzailean eginiko lanei, dagokion hautapen-prozesuan deitutako lanpostuetan, baremo honen arabera:

– Erizaintzako Laguntzaile kategorian, C2 azpitaldean, administrazio deitzailean eginiko lana, 0,00914 puntu lan egindako egun bakoitzeko.

Zenbatzeko, erakunde bakoitzean lan eginikoaldiak batuko dira. Nolanahi ere, lanaldi osoan lan eginikotzat hartuko dira lanaldi partzialean edo murriztuan lan egindakoaldiak. Ezin izango da egun berean kontratu/izendapen bat baino gehiago zenbatu.

b) *Titulazioak eta probak gainditzea karrerako funtzionario edo lan-kontratuko langile finko izatera iristeko prozeduretan.*

Gehienez 20 puntu emango zaizkie merezimendu hauei:

b.1. Deialdiko lanpostuen funtzio-eremuari lotutako prestakuntza-ikastaroen ordu-kopuruengatik (erakunde ofizialek -administrazio publikoko eskolak edo institutuak, administrazio publikoak, unibertsitateak, elkargo profesionalak, mutualitateak, fundazioak, elkarteak, federazioak- emandako edo homologatutako ikastaroak), 0,034 puntu ikastaro-ordu bakoitzeko, gehienez 20 puntu.

b.2. Lanpostua lortzeko eskatzen den maila bereko titulu akademikoa izateagatik (baldintza gisa egiaztatutakoak bestelakoa), betiere deitutako plazei lotutako lanpostuen eremu funtzionalerako egokiak diren titulazioak badira: 7,5 puntu.